

ASTEAZKENA

2021/02/17

9. urtea, 1.371. zenbakia

107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83 €

Bihar hasiko da Ahozkotasunaren Ahoz Aho jaialdia

Tolosaz gain, eskualdeko hainbat herritan izango dira ipuin kontakizunak, eta baita eskualdetik kanpo ere; martxoaren 13an izango da Euskal Narratzaileen Topaketa // 2

Hainbat enpresak euskara sustatzen jarraituko dute

Anoetako eta Irurako 74 enpresatan euskararen presentzia areagotzeko, hamabi urteko lana egin dute Galtzaundi euskara taldeak eta bi herrietako euskara zerbitzuek // 3

Munduari bira «azkarra» emango diote gaur, Leidor aretoan

Euskal Barrokensemble musika taldeak lehen mundu biraren 500. urteurrenaren aitzakian eginiko proiektua aurkeztuko du // 2

Altuna eta Peña finalerdietara sailkatzeko aukera handiekin

Eskuz Binakako Txapelketa lehen fasearen erdira iritsi da, eta eskualdeko bost pilotariak egoera ezberdinetan daude sailkapenean // 7



TOLOSALDEA BIZIKLETEKIN ELKARTASUNA

Gorka Egia orendaindarrak bultzatuta bizikleta bilketa egin dute Tolosaldeko hainbat ikastetxetan, Portugaleteko Birzikleta elkartearen bitartez, beharra dutenen artean banatzeko; 150 bizikleta eta 50 kasko biltzea lortu dute // 6

ENERITZ MAIZ

8.000€
ARTEKO
AURREZPENA

OLABERRIA
OUTLET
Urtarrilaren 27tik 29ra

HITZORDUA ONLINE
EDO AURREZ-AURREKOA
Zeuk erabaki!

COVID FREE AREA

OLABERRIA, GIPUZKOA | Iñauti Ind., 21

PEUGEOT KIA FIAT FIAT PROFESSIONAL ALFA ROMEO Jeep

Ahozkotasuna landuko dute datozen asteetan

Oñatin emango zaio hasiera bihar Ahoz Aho jaialdiari, eta martxoaren 13ra bitarte, eskualdeko hainbat herritan ipuinak entzuteko aukera izango da

Irati Saizar Artola

Bihar emango zaio hasiera Ahoz Aho ahozkotasunaren nazioarteko jaialdiari. Martxoaren 13ra bitarte, kontakizunek eskualdeko hainbat herri hartuko dituzte. Oñatin hasiko dira bihar, eta etzi Amezketan jarraituko dute.

Jaialdia hamalaugarren ediziora iritsi da, eta eskualdean hainbat helmugatan jardungo du, Tolosaz gain: besteak beste, Ibarra, Amezketan eta Albizturren. Eskualdetik kanpo ere, Ordizian, Ataunen, Oñatin, Arrasaten eta Arabako Ozaeta-Barrundian izango dira. «Modu horretan jaialdiaren izpiritu bidaia zalea piztu nahi dugu», azaldu du May Gorostiaga Intujai teatroko kideak. Herriz herri mugitzeko nahi hori aurtengo kartelean islatu dute: bapore bat airean irudikatu dute puztutako kalabaza bati helduta. Horrela antolatzaileek bidaiatzeko gonbita egin dute.

Urtero bezala, Euskal Herriko artistekin batera, nazioarteko kontalariek ere beraien sormen lanak aurkeztuko dituzte. Goros-

tiagak zehaztu duenez, «normalean artisten %80 euskaldunak izan ohi dira, baina gure programazioa aberastu egiten dugu nazioarteko artistekin batera». Hego Amerikatik heldu dira aurtent hainbat gonbidatu: Soledad Felloza Uruguaitik, Ruben Martinez Venezuelatik eta Nicolas Buenaventura Kolonbiatik. «Guztien artean programazio zabala eta interesgarria osatu dugu, eta gerturatuko den publikoak liluratzea da asmoa».

Ipuin kontakizunez gain, jaialdiak bestelako eskaintzak ere prest ditu. Esaterako, narrazioari buruzko ikastaro trinko bat eskainiko du Soledad Fellozak, otsailaren 27an eta 28an. Amaro-zko auzo elkartearen izango da eta guztira, 12 orduko iraupena izango du. Bi egunetan egingo dute, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara. Gorostiagak esan duenez, ikastaro horrekin «lanerako tresna gehiago» hartzeko aukera izango dute.

Horrekin batera, bidea emango zaio aurtent ere Euskal Narratzaileen Topaketari. Martxoaren 13an izango da, eta ekitaldi ho-

rrekin itxiko dute aurtengo jaialdia. Urtero gai bat hartzen dute eztabaidarako, eta aurtent, euskal ahozkotasunaren gainean egindako tesiak izango dituzte hizpide, *Kontatu zure tesia* izenburupean. Horretarako, Antton Irusta, Leire Diaz de Gereñu eta Amaia Elizagoien gonbidatu dituzte euren tesien azalpenak ematera.

Egun hori Urrezko Kalabazaren saria emateko ere baliatuko dute. Sari horrekin kontalaritzan egindako ibilbidea saritu nahi izaten dute antolatzaileek, eta aurtent, Itziar Zubizarreta kontalaria izango da sarituko dutena, «euskal ahozko narrazioan ezinbesteko erreferentzia izateagatik». Beste bi urrezko kalabaza ere eman ohi dituzte, baina horien irabazleak egunean bertan jakinaraziko dituzte.

Iazkoa bertan behera utzi behar izan zuten, nahiz eta udazkenean zerbait errekupeatu. Intujai teatrotik esan dute beharrezko neurriak hartuta lortu dutela aurtengo aurrera ateratzea. «Hitzak esateko beharra duenean bere bidea bilatzen du».



Ahozkotasunaren nazioarteko jaialdiko aurtengo kartela. ATARIA

EGITARAUA

Otsailak 19

Amezketan. 18:00. Jokin Irungaray eta Kattalin Salaberry, kultur etxean.

Otsailak 23

Ibarra. 18:00. Jokin Irungaray eta Kattalin Salaberry, kultur etxean.

Otsailak 27

Tolosa. 19:00. Soledad Felloza, Amaro-zko auzo etxean.

Martxoak 1

Albiztur. 14:30. Lur Usabiaga, eskolan.

Tolosa. 17:30. Lur Usabiaga, Amaro-zko auzo etxean.

Martxoak 3

Tolosa. 10:00. Ahozkotasunaren gala nagusia, Leidor aretoan.

Tolosa. 17:30. Itziar eta Joxan kontalariek, Berazubiko auzo elkartearen.

Martxoak 4

Tolosa. 19:00. Nicolas Buenaventura, Berazubiko auzo elkartearen.

Martxoak 8

Tolosa. 17:30. Iraitz Lizarraga kontalaria, Amaro-zko auzo etxean.

Martxoak 13

Euskal Narratzaileen Topaketa, Tolosan, Amaro-zko auzo etxean.

09:30. Hitzaldia: *Kontatu zure tesia*, Antton Irusta, Amaia Elizagoien eta Leire Diaz de Gereluren eskutik. Ko-ordinatzailea: Joxemari Karrere.

12:00. Ruben Martinez Santana.

13:00. Urrezko kalabaza sariak 2021. Amaia Agirre eta Bixente Gorostidi bertsotan.

Antzinako itsas doinuak, Leidorren

Euskal Barrokensemble taldeak Juan Sebastian Elkanoren irudia oinarri duen proiektua aurkeztuko du Tolosan, gaur, 19:00etan

I.S.A. Tolosa

Juan Sebastian Elkanoren mundu bira oinarri hartuta, kontzertua eskainiko du Euskal Barrokensemble taldeak, gaur, 19:00etan, Tolosako Leidor aretoan. Miren Zeberio taldeko musikariak azaldu moduan, munduari buelta «azkar» bat emango diote gaurko kontzertuan:

«Haiek hiru urtean egindakoa, guk ordu eta laurdenean laburtuko dugu».

500 urte dira munduari lehen mundu bira eman zitzaionetik, eta horren aitzakian, Euskal Barrokensemble musika taldeak *Lehen mundu bira*, Juan Sebastian Elkano disko-liburua plazaratu zuen 2019an. Bi urte beranduago, Tolosara iritsiko da bi-

daia hari erreferentzia egiten dion kontzertua. «Mundu biraren 500. urteurrena den hone-tan, iruditut zitzagun aitzakia polita izan zitekeela kontatzea euskaldunok milaka urtetan zehar zer erlazio eduki dugun itsasoarekin, eta horrek zer eman digun», azaldu du Zeberio. Ikerketa lan sakon bat egin ostean, hortik osatu dute erreperitorioa.

Zeberio aurrerratu duenez, dozena bat musikari igoko dira oholtzara. Joxean Bengoetxea ere bertan izango da testu batzuk errezitatzen eta Oinkari txiki taldeko Onditz Esnaola eta Jurgi Errandonea dantzariak ere hartuko dute parte.

Biolina, txistua, txirula, kontrabaxua, perkusioa, gitarra eta lautea bezalako instrumentuen doinuak entzuteko aukera izango da, guzti-guztiak antzinako instrumentuak. Horixe baita Euskal Barrokensemble musika

taldearen berezitasuna, antzinako musika egitea. «Gure historia nolabait ezagutzera ematen saiatzen gara, nahiz barroko garaikoa zein lehenagoko edo geroagokoa. Gure perspektibatik kontatzen dugu gure historia eta gure musika», dio Zeberio. Enrique Solinis gitarra jotzaile bilbotarra da taldea zuzentzeaz arduratzen dena.

Kontzerturako sarrerak Leidorreko leihatilan bertan edota Kutxabanken webgunean eros daitezke, 10 euroan.

Lau positibo berri zenbatu dituzte

Erredakzioa

Osasun sailak emandako datuen arabera, 9.565 test egin zituzten herenegun Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta horietatik, 453 (%4,7) izan ziren positiboak. Tolosaldean 4 positibo zenbatu dituzte azken orduetan, bi Ibarren eta beste bi Tolosan.

Tolosa eremu laranjan dago 100.000 biztanleko 314,43ko intzidentzia tasarekin eta Amasa-Villabona horian 118,30ko tasarekin. Osasun eremuei erreparatuta Ibarakoak jarraitzen du laranjan, 458,42ko intzidentzia-ekin. Tolosakoa (293,27), Villa-

bonakoa (206,72) eta Alegiakoa (133,99) horian daude, Tolosaldeko ESIa bezala; Osasun sailak emandako datuen arabera, 268,29ko tasa du eskualdeko ESIak.

Ospitaleen egoera dela eta, COVID-19aren ondorioz 60 pertsona ospitaleratu ziren astelehenean, eta COVID-19a duten 168 pertsona ZIUn daude. Azken 14 egunetan, 100.000 biztanleko intzidentzia tasa Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 450,2koa da, eta honenbestez, hiru lurralde historikoak eremu laranjara pasa dira. Gipuzkoan 106 positibo zenbatu ziren astelehenean.

GUTUNA

Inauteriak, gureak ere badira

Egun arraroak izaten ari dira hauek, tolosarrontzat: festarik gabeko inauteriak. Barruan sentitu, baina ukitu ezin ditugunak. Eta, hain justu horregatik, ez genuen pentsatuko, hasi berri dugun urteak testu hau idatzi beharra ekarriko zigunik. Duela egun gutxi, ordea, harri duraz jaso dugu Tomas Hernandez Mendizabalek 2021eko Tolosako inauterietarako sortu duen kartela.

Artistak urtero udalari egiten dion oparia edo dohaintza izaten da kartela, eta Hernandezen hamarkadako lanak laudorio bezainbeste kritika jaso du, kartela egiteko aukera beste sortzaileei ere zabaltzea eskatu izan dutenen ahotik. Gaur, dena den, bestelako argudioak mahai gainera-
tu nahi genituzke guk.

Txalaparta-jotzaile bikote batek hartu du, aurren, Tomas Hernandez Mendizabalek diseinatuak kartelaren erdigunea; haien inguruan daude, ohiko izenburu eta datak. Txalapartak gure herriko inauteria zuzenean ordezkatzeko ote duen edo ez duen eztabaidatu gabe, diseinuari begiratzen dion edonork identifikatuko ditu, bertan, bi gizon, txapela jantzita. Kartelaren erdigunean eta, ondorioz, inauterien erdigunean. Berrit.

Opariak opari, ez da onargaria gisa horretako lan bat Tolosako inauterietako kartel ofiziala izatea. Hasteko, ez du Tolosako biztanleriaren erdia ordezkatzeko

eta, sinbolikoki bada ere, emakumeoi enegarrenez ukatzen digu festaren erdigunea hartzea.

Diseinu horrek ez ditu lan feministaz eraldatzen ari diren festarako molde zaharkituak erreproduzitu besterik egiten; proposamen atzerakoia eta baztertzaila da.

Gainera, kartel hori herritarren artean banatzea, ez da bateagarria udala inauteri berdinzale batzuen alde sortzeko den behatoki bat martxan jartzearekin. Berdintasun irizpideek nahitaezko abiapuntu izan behar dute, herriko edozein jardura eta hitzorduren bueltan.

Egiari zor, nekatuta ari gara lerootan behera. Noiz arte jarraitu behar dugu, horrelakoak ikusi eta asaldatzen? Noiz arte, honez kero praktika automatiko behar luketen erreakzioak eskatzen? Udal agintarietako inori ez al zaio lotsaren alarma piztu, lan baztertzaille hori ikusitakoan? 2021. urteak ekarri dizkigu gure lehen ez-inauteriak, baina, kartelari begira, aurreko mendera egin dugu salto, gutxienez.

Aitortu behar dugu, sinestezi-na zaigula, garaiotan, aldarri hauek guztiak plazaratu behar izatea. Hala ere, behar adina alditan exijituko dizkiogu udalari, benetako zeharkakotasun eta politika feministak: aurrera begira, ezar ditzatela inauterietako kartela sortzeko parekidetasun irizpide argiak, eta betearaz ditzatela zorrotz.

Inauteriak, gureak ere badira!

Tolosako Asanblada Feminista

Euskara sustatzeko konpromisoa hartu dute hainbat enpresak

Anoeta eta Irurako enpresetan euskararen presentzia areagotzeko, hamabi urtetako lana egin dute Galtzaundi euskara taldeak eta bi herrietako euskara zerbitzuek

Erredakzioa

Euskarak bizitzako alor guztiak behar ditu aurrera egiteko eta zailtzarik gabe, lan munduak berebiziko garrantzia du horretan. Anoetak eta Irurak herri izaera euskalduna dute eta jakina da bertako enpresa kopurua handia dela. Bi herri horietako enpresetan euskararen presentzia areagotzeko asmoarekin, hamabi urtetako lana burutu dute Galtzaundi euskara taldeak eta Anoetako eta Irurako udaletako euskara zerbitzuek elkarlanean. 2008tik 2020ra arte, 74 enpresetan egin da euskara sustatzeko lana.

Urtero bi herrietako hamar bat enpresekin lan egin da euskara indartzeko eta lanketarako enpresak ez dira zoriz aukeratuak izan. Kontuan hartu da enpresa guztiak ezaugarri antzekoak izatea: 50 langile baino gutxiago izatea eta euskararen erabilera areagotzeko programa zehatzik edo ziurtagiririk ez izatea. Enpresei proposamenaren berri eman ondoren, batzuk egitasmoari bide ematea erabaki dute eta beste batzuk ez. Anoetako eta Irurako udaletako euskara zerbitzuek sustatuta eta Galtzaundiko teknikarien bitartez, hizkuntza paisaian eta idatzizko eta ahozko barne zein kanpo harremanetan eragin nahi izan da honenbestez.

74

ENPRESEN KONPROMISOA

2008tik 2020ra arte, 74 enpresetan egin dute euskara sustatzeko lana Irura eta Anoetako udaletako euskara zerbitzuek eta Galtzaundi euskara taldeak elkarlanean. Urtero bi herrietako hamar bat enpresekin lan egin da euskara indartzeko

Urte hauetako prozesuan Galtzaundi euskara taldeak ikusi ahal izan du enpresen ahozko eta eguneroko funtzionamendua euskalduna dela, baina enpresek sarri ez dutela irudi hori ematen kanpotik. «Eta horretan, kontzientziario lan handia egin da, sarri ez baitira kontziente beraien izaera linguistikoa ez dutela kanpora islatzen». Euskararen normalizazioan eragiteko, konpromisoak betetzeko eskakizuna lantzeaz gain, udalak eskaintako itzulpen zerbitzuaren eskaintza ere burutu da. Zubi lanari esker, zerbitzuaren erabilera areagotzea lortu da eta zailtzak argitzeko bideak erraztu dira. «Adierazgarria izan da, enpresa batzuen kasuan, borondate osoz, alde zuzen zehaztuta zeuden aldagai batzuk euskaldundu izana: marka edo izena edota errotulazioa, esaterako.

Enpresa batzuk nahikoa izan dute bultzada txiki bat pauso esanguratsuak emateko».

MUGAK ERE BEGI BISTAN

Burututako bisitetan, ordea, oztopo eta mugak ere aurkitu dituztela jakinarazi dute lanketan parte hartu duten eragileek: «Azken urte hauetan, krisiak gogor jo du lan munduan eta euskararen normalizazioan inbertitzeko dirua falta dela agerian gelditu da. Aldi berean, esku-hartzea mugatu duten elementuekin ere aurkitu da egitasmoa: enpresa batzuk, Euskal Herritik kanpoko bezeroak dituzte eta beste erdaratan lan egiten dute». Oztupoak oztopo, Anoetako eta Irurako enpresek aurrerapausoak eman dituzte urte hauetan. «Bakoitzak bere inplikazio mailan, baina era eraginkorrean adostuta hartu dituzte konpromisoak», adierazi dute Galtzaunditik.

Bigarren sektorean euskararen egoera lantzeko beharra identifikatua dute Tolosaldeko euskalgintzako eragileek. Beraz, Anoetako eta Irurako lanketa berezitu eskualdeko estrategia bateratuarekin koordinatzeko asmoa dago hemendik aurrera. Tolosaldeko Euskararen Mahaia jarritako helburuen barruan landuko den ekintza planaren bitartez garatuko dira aurrerantzean bigarren sektorean euskara indartzeko lanketak.



zozketak

Atarikideentzat bi sarrera dauzkagu



Arineketan kontzerturako
2 sarrera
Otsailak 24, asteazkena, 19:00, Leidor aretoan (Tolosa)

Atarikideentzat bi sarrera dauzkagu



Ez Dok Ero antzezlanerako
2 sarrera
Otsailak 21, igandea, 19:30, Gurea Antzokia (Amasa-Villabona)

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus

XIX. mende hasieran zabaldu ziren lehen paper fabrikak eskualdean, eta pixkana ugaltzen joan ziren hamarkada askotan zehar; sektoreak milaka langile bildu zituen urte luzez

Oria ibaiko paper fabriken historia

Joxemi Salzar

Paperaren lehen aipamena Txina eta Egiptokoak dira, K.a. lehen mendekoak, batean trpuak eta kalamua erabiliz, eta bestean, papiroa. Folioak, koadernoak, kartazalak, poltsak, txartelak, tiketak, kartulinak, kartoia, ahozapiak, mantelak, toallatxoak, komuneko papera, diru billeteak, paper margoak, konfetiak, serpentinak eta beste mila gauza egiten dira paperarekin. Dokumentu garrantzitsu asko material horretan idatzita jasotzen dira oraindik ere, teknologia berrien garai hauetan: aktak, kontratuak, erregistroak, eskriturak, txostenak, erreziobak... Eta esku artean duzun egunkaria ere bai, noski. Esaten dute Gipuzkoako lehen dokumentua paperean Domenjon Gonzalez de Andiak Tolosan sinatu zuela.

Mende batean zehar (edo gehiago) Tolosaldeko ekonomia sektore garrantzitsuena izan da papera fabrikatzea. XIX. mende hasieran zabaldu ziren lehen paper fabrikak gure eskualdean eta ugaltzen joan ziren hamarkada askotan zehar.

Lantegi horiekin batera, paperaren manipulatuak eta makineria enpresa ugari ireki ziren. Milaka langile biltzen zituen sektoreak, inguru honetako konomiaren ardatz nagusia izanik XX. mendeko azken urteak bitarte. Gaur egun lantegi batzuk martxan gelditzen badira ere, papergintzak galdu du garai batean izan zuen presentzia.

IBAIK KUTSATUENA

Sektore honek Tolosaldean izan duen historia laburbiltzen saiatuko gara orri hauetan. Horretarako bi tolosarrek idatzitako liburak izango ditugu lagungarri, informazio zabal eta interesgarria eskaintzen dutelako: Antonio Maria Labaienen *Escenas papeleras* (1947) eta Francisco Tuduriren *Papelera del Oria, una fábrica centenaria* (2011).



Araxes paper fabrika 1915. urteko argazki batean. ATARIA

Paper fabrika gehien zituen ibaia izan zen Oria urte askoan, estatu mailan eta seguru aski Europa eta mundu mailan ere bai. Horrekin batera, eta lantegi horiek botatzen zituzten zaborren-gatik, munduko ibairik kutsatuenaren titulua ere irabazi zuen. Oria ibaiak eta bere ibaiadarrek (Amezketan, Araxes, Berastegi eta Leitzaran) paperaren ekoizpenaren inguruko lantegi mordoak biltzen zuten oso kilometro karratu gutxian.

Horietako gehienak itxi eta desagertu egin dira azken hamarkadetan, Europa iparraldean (Norvegia, Suedia, Finlandia, sektorean nagusi izan ziren herrialdeak), baina baita erdialdean ere (Alemania, Frantzia, Italia) gertatu den bezala, ia-ia nazioarteko enpresak bakarrik mantenduz martxan. Ehungintzan eta oinetakoen sektorean ere antzekoa gertatu dela esaten du Tudurik bere liburuan.

IBILALDIA ORIAN ZEHAR

Paperaren ibilbidea proposatzen du idazle honek eta, eskualdetik kanpo, Oriaren jairolekutik gertu, Zegamako paper fabrikatik (1865-1987) abiatzen da, Legorretako Etxezarretarekin jarraituz.

Lantegi hori kartoia egiten hasi zen 1904ean, eta 1918an papera-ekin hasi zen. 1989an paper birziklatua egiten hasi zen, baina 90eko krisia jasan zuen. 2004ean Villabonako Salvadora bereganatu zuen Paperalia izenarekin eta 2009an Amaroizko paper fabrika hartu zuen, baina espermentua gaizki atera zen eta gaur egun itxita dago.

Tolosaldean sartuta, Alegian La Providencia izeneko zegoen, Arza, Eizmendi, Aranzabe eta Sorrarainek 1858an sortua. XIX. mende bukaeran edo XX. mende hasieran sute batek suntsitu zuen, baina berreraiki egin zuten eta 1925ean ekoizpen handia zuen, egunkari eta enbalaje papera eginez. Ez dakigu noiz itxi zen.

Amezketan, Aralar izeneko paper fabrika sortu zuten 1935. urtean Amunarrizek eta Altzuetak, gaur egun oraindik martxan jarraitzen duen bakarrenetakoa, eta enbalaje malgua, garagardo etiketak eta mediku paperak egiten dituzte.

Eta Tolosan bertan sartuta, lehendabizikoa ibaia jarraituz, Arzabalza zen, 1905ean Sotok (alkatea izandakoa), Tudurik eta konpainiak sortua jabe berdinen

Duras litografia tailerra hornitze-ko, aurretik udalarena zen teila fabrika. 1989. urtean itxi zen Arzabalza. Oso urrutira joan gabe, Olarrain auzoan Laurak Bat izeneko paper fabrika izan zen, 1890ean Sarasolak eta Errenteriako Vasco-Belga sozietateak ireki zutena. 1903an Papelera Española erosi zuen egunkarietarako papera egiteko. Aspaldi itxi zen, baina bere langileentzako egindako etxea gogoan izango dute adin batetik aurrerakoek eta akueduktu edo ubidearen arrastoak gelditzen dira oraindik.

Araxes ibaiadarrean beste bi papelera izan dira: ibaiaren izen berekoa eta Amaroiz. 1856an hasi zen lanean lehena, Jose Antonio Irazustak sortua Txarama auzoan La Confianza izenarekin. 1885ean handitu egin zuten. Lantegiaz gain, kolonia osoa eraiki zen bertako langileentzat: etxeak, eskola, kapera eta zinea. 1902an hiru kilometroko kanala egin zuten, fabrika urez hornitze-ko, tartean gaur egun zutik dagoen akueduktu, 15 metroko altuera eta 60 metroko luzera duena. Betoiz eginiko lehena izan omen zen Espainia osoan. 1970ean Araxes ibaiaren eskuinaldera zabaldu zituzten instalakuntzak. Pa-

per fabrika 1990ean itxi zen, krisiarekin. Orduan Celulosas de Araxes enpresa ireki zen bertan, 2007. urtean itxi zena.

TOLOSAKO AZKENA

Amaroiz auzoko paper fabrikaren sorrera data desberdinak aipatzen dituzte: Labaienek 1858n kokatzen du eta Tudurik 1856an, aurretik burdinola zen tokian. Sese izan zen sortzailea La Primitiva izenarekin eta gero Etxeberria eta Bandres ere sartu ziren enpresan bazkide gisa. 1947an Ariztia, Arsuaga eta konpainia ziren jabeak. 1991 arte eduki zuen

Mende batean zehar Tolosaldeko ekonomiaren sektore garrantzitsuena izan da paper fabrikena

Papera egiteaz gain, sektore horri lotutako enpresa ugari ireki ziren eskualdean

La Esperanza Espainiako paper jarraituko lehen fabrika izan zela esan izan da; ez da horrela

martxan auzoko ikur bihurtu zen tximinia luzea, pasta egiteari utzi zion arte. 2009an egin zuen azken lana: bingoan jokatzeko kartoi batzuk. Tolosako azken paper fabrika izan zen. Orduan Legorretako Etxezarretarekin elkartu zen, langileak hara joanez, baina handik gutxira itxi zen hura ere.

Araxes eta Oria elkartzen diren puntuan Papelera Española egon zen urte luzez. Aurretik oihal fabrika izan zen. Baldomero Ollok sortu zuen La Guipuzcoana izenarekin, gero La Tolosana eta Guadalupe lantegiak ere sortu zituen berak. Ilarramendi izena izan ondoren, 1903an Papelera Española izena hartu zuen. Urte askoan lantegi honetako langileen sarrera eta irteerako sirena hotsak markatu zuen Tolosako eguneroko bizimodua. Tren geltokitik bertaraino materialak garraiatzeko trenbidea zegoen, zubitik pasatuz. Aurreko mende-

ko 70eko hamarkadako lehen urteetan itxi zen, bere langileak Erreterriako faktoriara pasatuz.


Enpresa honen ondoan SAM (Sociedad Anonima de Manipulados) sortu zen, aurretik zeuden manipulatuena tailer batzuk elkartuta: Urbieta, Papelera Española, Tolosana, Arkaute... Martxan jarraitzen du Usabal auzoan eta gehienbat kartazalak eta koadernoak egiten ditu, baina garai batean egiten zuen Calcosam kalko paperak ospe handia lortu zuen.

Ibaian behera jarraituz, Tolosako erdigunean beste adar bat elkartzeko zaio, Berastegi, Elduarain edo Zelai izenak hartzen dituen, eta hemen ere paperaren inguruko lantegi ugari izan dira eta badira oraindik ere. Ibaia horren amaieran La Tolosana zegoen, aurretik Igarondo errota zegoen tokian. Martin Olano 1818an hasi zen papera eginez bertan, artisau erara. Gipuzkoako lehena izan zela dio Labaienek. Lehen aipatutako Ollok eduki zuen 1862tik eta 1897ko krisian Limousin, Aranburu eta Raguani saldu zien. Honek egiten zuen Galgo papera famatua izan zen. 2005ean Andoingo Leitzaran paper fabrikarekin elkartu zen, baina proiektua gaizki atera zen. 2008an bota zuten La Tolosana. Metro batzuk gora, Zumardiaundiaren parean, Paperola zegoen, La Tolosanarako pasta egiten zuena. 1858tik 1991 arte iraun zuen eta oraindik erabiltzen zuen ubidea ikus daiteke.

Ibarra pasata, San Jose fabrika zegoen, izen bereko ermitaren ondoan. Aurretik kartoi eta artisau papera egiten zuena. Elduako lantegiko nagusiek zuten 1920an eta 1936tik aurrera hartu zuen San Jose izena. Moneta Etixerako paper bereziak eta kartulinak egiten zituen. 1991 arte egon zen martxan. Ibaian gora eginez, Belauntzako lurretan, Betotibar, Zaragueta eta Elduaien izenak izan zituen paper fabrika izan zen 1919tik 1978an itxi zen arte. Paper iztukatuak eta distira handikoak egiten zituen. Gero bere instalakuntzetan Gure Txokoa dantzaleku famatua izan zen.

ELDUAKOA, ORAINDIK MARTXAN

Handik gertu, Berrobin jada, Uranga paper fabrika dago, 1968n Leitzako Sarriok erosi zuena eta gaur egun Torras taldearena dena. Eta aurrera jarraituz, Elduan, Kalparsoro lantegia dago. Garin anaiek eta Berroetak sortu zuten 1901ean eta 1920tik Kalparsoro izan zen nagusia. Urte batzuetan Munksjö talde finlandiarrean izan ondoren, gaur egun



Esperanza fabrika 1914. urtean. ATARIA

Smurfit talde irlandarrekoa da. Dekorazio paperetan dago espezializatua. Azkenik, ibaiadar honekin bukatzeko, Berastegi Arrosi paper fabrika sortu zen 1947an. 1970an Sarriok erosi zuen eta handik gutxira itxi zen.

ESPERANZA ETA GUADALUPE

Oria berriro hartuz, Tolosan bertan beste bi lantegi izan ziren: Esperanza eta Guadalupe. Esperanza paper jarraitua egin zuen Espainiako lehena izan zela diote batzuk, baina Tuduriren liburuan argitzen da beste batzuk izan zirela lehenago Manzanares el Real (Madril), Burgos eta Bejarren (Salamanca). Hemen ere baziren lehendik papera artisau eran egiten zuten lantegi batzuk, ez era industrialean. Brunet, Tantonat eta Guardamino izan ziren Esperanzaren sortzaileak eta bazkide aldaketa asko ezagutu zituen: Brunet anaiak, 1863n Arza, Eizmendi eta konpainia,

1887an Arza eta konpainia, 1892n Ruiz de Arkaute, Arza eta konpainia, 1902an Ruiz de Arkaute eta konpainia... 1968an Sarriok erosi zuen eta aspaldi itxi eta bota zuten. Gaur egun gelditzen den oroimen bakarra bere nagusiak

Paper enpresariak ekintzaileak ziren: Banco Tolosa, Paper Eskola eta Suzai sortu zuten

bizi ziren Arkaute txaleta da, Arramele auzoan. Interneten bada paper fabrika horren irudi zaharrekin osatutako bideoa. Metro batzuk beherago Guadalupe lantegia izan zen, 1858tik 1985era, gaur egun izen bereko industrialdea dagoen lekuan. Hau ere lehen aipatutako Baldomero Ollorena izan zen garai batean. Paper lodiak eta kartulinak egiten zituen batez ere.

Iruran beste Etxezarreta paper

fabrika izan zen 1843tik 1988 arte. Etxezarreta, Larrion eta Arizti izan ziren sortzaileak. Eta ibaian behera jarraituz bi lantegi izan dira: Villabonan Salvadora eta Zizurkilen Oria. Salvadora 1870ean ireki zuten Irazustak, Barberiak,

1975eko krisiaren ondorioz paper-fabrika gehienak itxi ziren eskualdean; hiru gelditzen dira

Atxagak eta Foisek. 2004ean Legorretako Etxezarretarekin elkartu zen, langileak bertara joanez, baina hori ere gaizki atera zen eta itxi egin zuten. Ibaian izena daraman paper fabrika da zabalik jarraitzen duen bakarretakoa. 1911n jarri zuten martxan Portu anaiek, Rivillak eta konpainiak, hasieran Vascongada eta gero Iberica izenarekin. 1931n Portu izena hartu zuen. Kalte ugari jasan zituen 1953 eta 1983ko uholdeetan eta 1940, 1952 eta 1964ko suteetan. 1965ean Oria izena hartu zuen sozio berriekin, Portu familiak utzita.

Eskualdetik kanpo, Oria jarraituz, Andoainen Leitzaran paper fabrika izan zen 1953tik 2004ra, eta Leitzaran ibaiadarraren jaiolekuan, Leitzan, Sarrio sortu zen 1968an, gaur egun Torras taldean jarraitzen duena martxan.

BESTELAKOAK INGURUAN

Orain arte aipatu ditugunak papera egin izan duten enpresak izan dira. Baina horien inguruan, beharrezko hornigaiak eta makineria egiteko beste lantegi asko izan dira Tolosaldean. Adibidez, Antonio Maria Labaienek paper fabriketarako makinak egiten zituzten tailer mekaniko hauek aipatzen ditu 1947an Tolosan: Basagoitia arrabolak egiten, Perot

tela metalikoak eta zilindroak, Talleres Tolosa (gero Voith) fabrikazio mahaiak, Irurako Emua fresadorak, tornoak eta paper instalazioen egokitzapenak... Gainera Gorostidik, Talleres Tolosak eta Emuak papera egiteko makineria fabrikatzen zuten. Gerrogo Winkler ere sektore honetan aritu zen Anoetan. Paperarekin erlazionatutako arte grafiko enpresa asko izan ziren Tolosan: Lopez-Mendizabal, Tapia eta Mugerza inprentak eta Laborde-Labaien litografia nagusiki. Eta galdaragintzan aritutako enpresa asko izan dira, gehienbat paper lantegietan aritu direnak lanean.

HIRUEKIMEN

Paper enpresariak ekintzaileak zirela frogatzeko, eurek sustatutako beste hiru ekimen ere aipatzekoak dira: Banco Tolosa, Paper Eskola eta Suzai. Bankuaren sortzaile gehienak paper enpresariak (Mendia, Aranburu, Limousin) izan ziren 1911n, txapel fabrikako Antonio Elosegirekin batera. 1969n Banco Centralek bereganatu zuen eta 1999an, Banco Santanderrek, eta leku berean jarraitzen du gaur egun. Paper fabriketarako langile kualifikatuak prestatzeko sortu zuten 1965ean Paper Eskola Berazubini. Ospe handia lortu zuen Espainia osotik eta Hegoameriketatik ere ikasle asko erakarrit. 1986an Eusko Jaurlaritzak bereganatu zuen eta 2012tik Don Bosco ikastetxean dago integratuta, kimika ikasketak eskainiz.

Suzai, berriz, 15 paper fabrikek eta beste enpresa batzuk 1924ean sortutako suhiltzaile parkea izan zen. Aurreko mendeko 70eko hamarkadan Kondeaneko Aldapara lekualdatu zen eta bertan izan zen Foru Aldundiak eskualdeko parkea sortu arte. Bere ibilbide luzean sute ugarietan aritu zen boluntarioekin lanean, udalaren parkearekin batera.

Sektore honetako lantegien beste ekarpen garrantzitsua emakumeak lan munduan murgiltzea izan da. Paper fabrikak izan dira Tolosaldean emakume asko industria alorrean aritzeko sarbidea. Hainbat lantegitan lan bereziak egiteko kontratatatu izan dituzte bere historian zehar.

1975eko krisian hasi ziren paper fabrika asko ixten eta ia bi mendeko historia haiekin batera. Eskualdean erreferentea izan zen sektorea ia erabat desagertu zen eta erreleboa hartzeko lantegiak ez dira ia sortu. Gaur egun Oria, Kalparsoro eta Aralar paper fabrikak bakarrik mantentzen dira martxan.



Papelera Españolaren garai bateko irudia. ATARIA

Eneritz Maiz Etxarri

Tolosaldetik Bizkairako bidea egin dute tamaina eta estilo askotako bizikletak eta kaskoek. Portugaletetik etorri ziren larunbatean, kamioia hartuta, Nekane Urra, Zuriñe Arruza eta Jorge Bolaños boluntarioak. Igandean auzolan eguna jarria zuten bizikleta guztiak errebisatu eta konponketak egiteko. Ezkerraldean banatuko dituzte.

Portugaleteko Birzikleta elkar-teko boluntarioak dira. Erabilerririk ez duten bizikletak hartzen dituzte, eta konponketak behar dituztenak konpondu, eta behar duten familia ezberdinetan banatzen dituzte, bizi berri bat izan dezaten. *Ez umerik bizikletarik gabe, eta ez bizikletarik umerik gabe* dute leloa.

Konfinamendu ostean hasi zen guztia, eta lagun talde bat da. Elkar-teak elkarlanean funtzionatzan du eta auto kudeatua da. Ongi Etorri Errefuxiatuak elkar-teko haur bati ematen dizkio klaseak Nekane Urrak, eta normalean liburutegian elkartzen baziren ere, etxeko gelatxo bat prestatu behar izan zuen euskararekin lagundu ahal izateko: «Euskararen errealitatea, Ezkerraldean, guztiz bestelakoa da», dio. «Haurra nire etxeko gelara sartzean, bertan, nire bizikleta neukan, eta behin bizikleta ikusi zuenean ez zeukan besterik buruan», azaldu du. Orduan, bere artean pentsatu zuen, kuadrillan edo lagun artean galdetuta, bizikletaren bat lortzeko aukera izango zuela haurarentzat. «Haur gehiago daude Sestaoko Ongi Etorri Errefuxiatuen taldean, eta behin eskatzen hasita, pare bat gehiago eskatzea pentsatu nuen haur horiek bizikleta bat izan dezaten», kontatu du Urrak.

Portugaleteko Birzikleta ekimenarentzat 150 bizikleta eta 50 kasko biltzea lortu da Tolosaldeko sei ikastetxetan

Bizikletei bizi berria



Iragan larunbatean bizikletak sailkatu, eta kamioia kargatu zuten. E. MAIZ

Horrela hasi zen guztia. Lagun artean eta lankideen artean eskatuta. Ez zuten esperantza handirik hasiera batean, baina hamar bizikleta lortu eta bigarren bizi-tza bat ematearekin gustura geratu ziren. Ekimena martxan jarrita Gorka Egia orendaindarraren mezua jaso zuten. Sare sozialetan zabaltzen saiatu dira egiten ari direna, batik bat, bizikletak eman dituztenek ikus dezaten banatzen dituztela, eta ilusio eta poz berriak sortzen dituztela haurren artean.

«BENETAN ESKERTUTA»

Gorka Egia orendaindarra izan da ekimena Tolosaldera ekarri duena. «Instagramen nenbilen eta beraien leloa irakurtzean zerbait egin behar nuela beraiei la-

guntzeko pentsatu nuen». Eta horrela, Egia beraiekin harremanetan jarri zen, eta eskualdean bizikletak lortzeko bideak bilatzen hasi zen.

Egiaren proposamenari baiezkua eman zioten bizkaitarrek; «pentsatzen genuen berak ere gehienez jota beste hamar lortuko zituela», argitu du Urrak. Egu-berrien aurretik Tolosaldeko ikastetxe guztietara mezu elektroniko bat bidali zuen ekimenaren berri emanez Egiak, eta parte hartzera animatuko ahal ziren galdetuz. «Azkenean sei ikastetxek parte hartu dute, eta beste batzuei gelditzeko esan behar izan diet, agian aurrerago egingo dugula beste zerbait esanez». Izugarrizko erantzuna izan du, eta bizikleta eta kasko mordoa

bildu ditu: «Hasieran kontatzen hasi nintzen, baina gero utzi egin nuen. Hala ere, 150 bat bizikleta eta 50 bat kasko izango dira bildutakoak».

Bizikletak bildu ahala orendaindarra argazkiak bidaltzen hasi zenean, «etxeko» eskatu behar izan zioten Bizkaitik. Portugaleteko merkatuan dute tailertxo bat auto kudeatua dena, baina guztientzako lekurik ez.

Asteasuko eskola, Ibarrako ikastola, Tolosaldeko ikastola, Berrobiko eskola, Alegiako eskola eta Abaltzisketako eskolak parte hartu dute. «Benetan eskertuta nago bizikletak eta kaskoak eman dituzten familia guztiekin, eta baita ikastetxeekin ere izan duten harreragatik», esan du Egiak.

Haur asko dagoela bizikletarik gabe azaldu dute Birzikleta elkar-tekoek: «Ez da lehentasun bat bizikleta izatea, eta bizikletarik ez duten familietan behar garrantzitsuagoak dituzte». Ez zela inoiz pentsatzen jarri bizikleta bat izatea zer den aitortu du Urrak: «Hemen bizitzan zehar bizikleta bat izatea ohikoa da. Edo bat duzu, edo familiakoren batek zuelako zuk ere izan duzu», azaldu du; «baina etorkinak badira are eta zailagoa dute, eta ez dute familiako sare hori», dio. «Izugarria da, eta orain eskari pila bat ari zaizkigu etortzen».

BERRIZ ITZULI BEHARRA

Bizikletak banatzen ari dira, baina helburua, berriz ere bizikleta horiek zirkuituan sartzea da, hau da, behin txiki geratzen zaienean itzuli egin beharko dute bizikleta beste familia bati pasa ahal izateko. Helduen pare bat bizikleta ere badituzte, eta sei hilabeterako ari dira uzten, helburua txandakatzean dutelako edo behar gehiena dutenek erabiltzea nahi dutelako.

Egiak ikastetxe batzuetan, bertako hainbat ikasle ere bizikletarik ez dutela konturatu direla kontatu du: «Bilketa hau aprobetxatu dute bertako ikasleak bizikletak banatzeko, eta uste dut garrantzitsua dela. Askotan urrutira joan gabe ditugu, eta ikastetxean bertan identifikatu dituzte beharra duten ikasleak».

Egia «oso pozik» agertu da ekimenarekin, proiektua polita dela azpimarratu du, eta Birzikleta ekimenekoak ere «oso pozik» zeuden Gipuzkoatik jasotakoarekin. Bizikleta gehienak txiki geratu eta garaiean egon diren bizikletak dira, eta asko eta asko egoera oso onean daudenak.

Egiak Baliarraingo Jon Garmendiari ere eskerrak eman nahi izan dizkio bizikleta guztiak pilatzeko lekua uzteagatik.

Hilberriak eta urteurrenak

atarian jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Eskuz Binakako Txapelketa heldu da lehen faseko ekuatorera, eta sentsazio gazi-gozeekin dira eskualdeko pilotariak; oro har, atzelari jotzaileek egindako lana nabarmendu daiteke.

Bizkartzain on bat izatearen abantailak

Josu Artutxa Dorronsoro

Inoiz baino beranduago ekin zioten aurtengo eskuz binakako txapelketari, eta azken urteetako formatu bera errepikatuko dutenez, ohi baino beranduago amaituko da. Ezohikoa izaten ari da, arrazoi askorengatik, baina era berean, gozatzeko moduko partidak ere izan dira.

Aurtengo txapelketarako, eskualdeko lau pilotari aukeratu zituzten Aspe eta Baiko enpresek euren bikoteak osatzeko; laurak ere, aurrelariak: Eibarko enpresak, Jokin Altuna eta Erik Jaka; Bilbokoak, berriz, Jon Ander Peña eta Iñaki Artola. Alegiarrak, lesio bat tarteko, azken lau partidak galdu ditu. Ikusteko dago larunbatean jokatzeko moduan egongo den ala ez; datozen egunetan hartuko du erabakia.

Dagoeneko zazpi partida jokatu ditu bikote bakoitzak, hau da, txapelketako bikote guztien aurka aritu dira. Lehen bi postuetan, Aspeko bi bikote daude, seina garaipenekin: Elezkano II-Zabaleta eta Altuna III-Mariezkurrena II. Atzetik, Baikoko bi bikote dituzte, launa garaipenekin: Peña II-Albisu eta Olaizola II-Rezusta. Hauen atzetik, Ezkurdia-Galarza eta Urrutikoetxea-Imaz bikoteak daude, hiruna punturakin. Azken bi postuetan, berriz, Artola-Aranguren eta Jaka-Martija bikoteak aurkitzen dira, garaipen bakarrarekin.

Aurrelariak dira eskualdeko pilotariak, eta bakoitza, sentsazio ezberdin batekin aurkitzen da txapelketaren puntu honetan. Oraingoz, ordean, atzelarien gan jarri behar da fokua. Izan ere, joko oso ezberdinak dira lehen lau postuetan dauden bikotea-

ko atzelariak. Gainerako laurak baino jotzaile handiagoak dira, eta horrela, aukera gehiago sortzen dizkiete euren aurrelariari.

HASIBERRIA, AUSART

Jon Ander Peña konbentzituta dago, Jon Ander Albisurenkin batera, aurreikusitako maila ematen ari direla, batez ere, bikote modura. «Punturen bat gehiago izan ahalko genukeen arren, oso gustura gaude. Jon Ander maila ikaragarrian ari da, eta nire ustez, exijitzen zaidan maila ematen ari naiz. Hala ere, ez dugu erlaxatzeko astirik, eta badakigu sufritzea egokituko zaigula».

Ez da oso ohikoa binakakoan hasiberria den pilotari batek

Berdinduta dauden bikoteentzat garrantzi handia du elkarren aurkako partidetan lortutako aldeak

Peña erakusten ari den jokatzeko modua izatea. Oso erasokor ari da, galtzeko beldurrik gabe. «Atzelari indartsu bat dut, hutsune handiak irekitzen dizkidana, eta ezin naiz itxaroten egon. Ausart jokatu behar dut, aukera dudanean tantoa bukatuz».

Erregularitasun bat mantentzea ezinbestekoa izaten da gisa honetako txapelketetan. Hain justu, hori izan daiteke Peñaren eta Albisuren indarguneetako bat. Azpimarratzekoa da, gainera, Elezkano-Zabaleta bikoteari irabazi dion bikote bakarra dela. «Datu polita da, sekulako txapelketa egiten ari direlako». Baina lehen postuei gehiegi erreparatu gabe, bestelako asmoak ditu tolosarrak. «Errealistak gara, eta nire lehen txapelketa izanik, play-off-etan egotea dugu helburu».



Peña II.a lurrean, Altunaren aurkako partidaren txapara botatako azken pilotakadagatik atsekabetuta. MIKEL ASKASIBAR

LUXUZKO ATZELARIA

Altunak eta Mariezkurrenak badakite zaila izango dela bigarren itzulian oraingoz daramaten dinamika onari eustea, baina gogotsu eta ilusioz beteta daude. «Oso ondo jokatu dugu partida guztietan. Azken bietan oso garrantzitsua izan da batek partida txarra eginda ere, besteak bere bertsiorik onena erakutsi ahal izatea», dio amezketarrak.

Peña II.ak eta Albisuk osatutako bikotea izan da Elezkano II.a eta Zabaleta liderrei irabazi dien bakarra

Zenbait hilabetez profesionaletatik kanpo egon eta gero, ezezaguna zen Mariezkurrenak nola erantzungo zion txapelketaren erritmoari. «Geroz eta lasaiago ari da jokatzeko, konfiantza handiagoarekin; hala transmititzen dit behintzat. Luxu bat da horrelako atzelari batekin aritzea».

Lider izateak faborito etiketa ematen ote duen edo ez galdetuta, «asko falta da oraindik», dio Altunak. «Kirol honetan egoerak eta dinamika oso aldakorrek dira». Duela bi urte, txapelketak formatu ezberdina zuenean, jada lasai egongo litzake amezketarra, finalerdietako faserako txartela eskura izango lukeelako. «Orain, ordean, bederatzi partida irabazi eta hirugarren sailkatuz gero, kalera joan zaitezke. Oso arriskutsua da».

AZPIAN, BAINA EZ KANPOAN

Bestelako egoeran aurkitzen dira Erik Jaka eta Iñaki Artola. Garaipen bana eskuratu dute hirurek, eta aukera gutxi dituzte finalerdietan egoteko. Hala ere, esperantza galdu gabe ekingo diote bigarren itzuliari.

Lizartzarren kasuan, ez dira bere aurreikuspenak bete. «Ilusio handia genuen gure bertsiorik onena berreskuratzeko, baina oraindik ez dugu lortu». Gainera, irabazi duten partidaren min hartu zuen Martijak. «Gerora, konfiantza handirik gabe ari da, eta bietako batek arazoak ditueanean, eragina izaten du bikotean. Ez zait iruditzen maila txarra ematen ari garenik; gainera, galdutako bi partida irabazteko zorrian egon gara».

Zortea bezalako faktore ia guztiak aurka izan dituztela nabarmentzen du Jakak. «Ez dugu lortu erregularrak izatea». Hala ere, jakitun da oraindik ez dutela azken hitza esan. «Bestelako pentsamenduarekin ekin beharko diogu bigarren itzuliari, gozatze-kanpantxaratuz, itsutu gabe eta aukerak ditugun bitartean, horiei helduz. Kontuan izan behar dugu, iaz, seigarren sailkatu zen bikotea finalean egon zela».

Egoera berean dago Iker Elizegi, Baikoko atzelari asteasuarra. Promozio mailako txapelketan ari da, Arteaga II.aren bikotea osatuz; azkenak dira, puntu bakarrarekin. «Nire lehen txapelketa izanik, presiorik gabe nabil.

SAILKAPENAK

LEHEN MAILA

1. Elezkano II-Zabaleta	6-1(+45)
2. Altuna III-Mariezkurrena	6-1(+41)
3. Olaizola II-Rezusta	4-3(+16)
4. Peña II-Albisu	4-3(+15)
5. Urrutikoetxea-Imaz	3-4(-18)
6. Ezkurdia-Ladis Galarza	3-4(-18)
7. Artola-Aranguren	1-6(-35)
8. Jaka-Martija	1-6(-46)

PROMOZIO MAILA

1. Salaberria-O. Etxebarría	7-0(+70)
2. Elordi-Garmendia	5-2(+41)
3. Zabala-Erostarbe	5-2(+12)
4. Zubizarreta III-Uriondo	3-4(+13)
5. Larrazabal-Eskiroz	3-4(-21)
6. Alberdi-Salaverri II	2-5(-26)
7. Egiguren V-Ruiz	2-5(-34)
8. Arteaga-Elizegi	1-6(-55)

Emaitzak txarrak izan arren, gozatzen ari naiz, eta geroz eta erosoago aurkitzen naiz». Bikote sendagoa osatuz, garaipen gehiago eskuratzea dute helburu. «Lesioek utziz gero, ea erregularrak izatea lortzen dugun».

Lehen faseko bi bikote onenak zuzenean pasako dira finalerdietako ligaxkara. Ondorengo laurak, sailkatze partida jokatu beharko dute. Gainera, berdinduta geratzen diren bikoteen kasuan, garrantzi berezia izango du elkarren aurkako partidetan lortutako aldeak. Hortaz, azken postuetan daudenek ere, finalerdietan egoteko aukerak dituzte oraindik. Datozen jardunaldiak erabakigarriak izango dira eurentzat.



ASTEAZKENA, 2021EKO OTSAILAK 17
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baiarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania, Goltz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 17

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. Gipuzkoako Erresidentzie-tako gatazkan otsailaren 25ean eta martxoaren 30ean deituta dauden bi greba egun direla eta, elkarretartzea egingo dute, 11:00etan Trianguloa plazan, Oria-Goierri Eskualdeko ELA sindikatuko delegatuek.

Kontzertuak

Tolosa. Euskal Barrokensemble, Leidor aretoan, 19:00etan.

Erakusketak

Amasa-Villabona. Zientzian esanguratsuak izan diren emakumeak, udaletxeko arkupeetan.
Tolosa. *Jeiki Jeiki 2021* erakusketa, Aranburun. Inauteriei buruzko material eta bildumarekin egina.
Tolosa. *Gizonak, emakumeak eta txotxongiloak*, Topic-en.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
11:00. Musika zuzenean (Herdoil eta Kepa Izeta)
11:30. Gaurkoan Tolosaldeko
17:00. Martaren eskulanak
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Urrutiajunbe (Iñaki Intxausti)

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Magazina.
15:00. Desafioa. Herri kirolak.
16:00. Zebraidea. Magazina.
20:00. (H)ari naizela. Bertsolaritza, Imanol Artola Felix-ekin.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Edurne Mujika Martinez. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro atsegina. Goizean hodeiak eta ostarteak izango dira, baina berriz ere ostarteak gailenduko dira zeruan. Arratsaldeak aurrera egin ahala, berriz ere hodeitza areagotu egingo da, egun amaierarako zerua estalirik geratuz. Hala ere, ez da euririk espero. Haizeak hego-mendebaldetik zakar joko du eta tenperatura maximoak 16-18 graduan kokatuko dira.



Bihar. Giro kaxkarragoa. Goizean hodeiak ugariak izanagatik, nahiko giro lasaia izango dugu. Egurditik aurrera ordea, fronte baten eskutik euritarako joera handiagoa izango du eguraldiak. Zaparrada batzuk botako ditu, orokorrean indar handirik gabeak. Haizeak goizean hego-mendebaldetik joko du. Arratsaldean aldiz ipar-mendebaldetik kokatuko da. Tenperatura jaitsi egingo da, eta ez da 14-16 gradutik pasako.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

'(H)ari Naizela' 200. saiora iritsi da

Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Oihana Iguaran eta Julio Sotorekin bertso saioa izango da, Villabonako Gurean, hilaren 26an



Imanol Artola 'Felix' saioko gidaria eskuinean, Ane Zubia bertsolariarekin. ATARIA

Erredakzioa

(H)ari Naizela, Imanol Artola Felix-ek gidatutako bertsolaritzaren inguruko saioa da. 2016ko urtarilaren 17an egin zuen lehen irratsaioa eta ordutik, asteazkenero *Ataria Irratia*-n entzuteko aukera izaten da. Martxoaren 3an 200. saioa egingo du eta ospatzeko bertso saio berezia antolatu dute. *Uhinak* izango da saioaren tematika.

Irratsaioa, *Ataria Irratia*-ren, Harituz Tolosaldeko bertsozaleen topagunearen eta Xenpelar dokumentazio zentroaren hitzarmen baten fruitu da eta ber-

tso saio berezia ere elkarlan horretatik sortutako ekimena izango da. Villabonako Gurea zinemaren izango da saioa, otsailaren 26an, ostiralean, 19:00etan. Oihana Iguaran, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Julio Soto izango dira bertsotan, eta Imanol Artola *Felix* gai jartzaile lanak egiten.

Bertso saio berezi honetarako sarrerak dagoeneko eskuragarri daude, internet bidez (*ataria.eus*-en edota *villabona.eus*-eko zinema eta ikuskizunetarako sarrerak erosteko gunean). Sarrerak zenbakituak izango dira, bakoitza 10 euroan izango

da salgai, eta gehienez, aldiko 3 sarrera erosi ahalko dira. Modu horretan jende pilaketak saihestu nahi dituzte antolatzaileek.

Une honetan dauden neurriak kontuan hartuta, Amasa-Villabonarekin mugakideak diren herrietako bizilagunak ere bertartzeko aukera izango dute bertso saiora.

Hori bai, segurtasun neurriak direla eta, Gurea zinemako aforoa mugatua izango da eta 140 lagun ingururentzako lekua egongo da. Bertara joaten direnek, indarrean dauden osasun neurri guztiak bete beharko dituzte.

BERTSO SAIO BEREZIA:
(H)ARI NAIZELA
IRRATSAIOAREN
200. SAIOAREN
OSPAKIZUNA

Villabonako Gurea zineman
Otsailak 26, ostirala, 19:00etan



Gai jartzailea:
Imanol Artola 'Felix'

Bertsolariak:
Oihana Iguaran
Maialen Lujanbio
Amets Arzallus
Julio Soto

Informazioa:
ataria.eus-en
Sarrerak 10€

